ALHAO ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN **ALDIZKARI OFIZIALA**

2021eko ekainaren 7a, astelehena • 62 zk.

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

VITORIA-GASTEIZKO UDALA

OGASUN SAILA

Aurrekontuak, Finantza-kudeaketa eta Diruzaintza

2021eko ekitaldian kreditu-transferentziaren bitartez aurrekontu-aldaketa egiteko dosierraren behin-behineko onespena

2021eko maiatzaren 28an egindako ohiko bilkuran, behin-behineko onespena eman zien Gasteizko Udalbatzak 2017ko ekitaldiko aurrekontuan kreditu-aldaketak egiteko dosier hauei:

— 17.000,00 euroko kreditu-transferentzia 231203 3342 481.01 aurrekontu-aplikaziora "Korterraza Jaialdiarekiko hitzarmena", dirulaguntza izendun baterako.

— 257.137,67 euroko kreditu-transferentzia 1115 2325 481.48 aurrekontu-aplikaziora "Afroamerikarren elkartearekiko hitzarmena, zainpeko etxebizitzak", dirulaguntza izendun baterako.

Udalbatzaren Araudi Organikoaren 164. artikuluan, Arabako lurralde historikoko Toki erakundeen Aurrekontuei buruzko otsailaren 9ko 3/2004 Foru Arauaren 15. artikuluan eta Toki Ogasunak arautzeko Legearen Testu Bategina onetsi zeneko martxoaren 5eko 2/2004 Legegintzako Errege Dekretuaren 169. artikuluan xedatutakoaren ildotik, hamabost egun balioduneko epea zabaltzen da, erreklamazio eta iradokizunak aurkezterik izan dadin, Udalbatzari zuzenduta.

Behin betiko onetsitzat joko dira dosier horiek baldin eta jendaurreko erakustaldian erreklamaziorik aurkezten ez bada.

Vitoria-Gasteizen, 2021eko maiatzaren 31n

Ogasun Saileko zinegotzia
IÑAKI GURTUBAI ARTETXE

L.G.: VI-1/1958 ISSN: 2254-8432

Firmante: CN=ZERBITZU OROKORREN ZUZENDARITZA - DIRECCION SERVICIOS GENERALES, SERIALNUMBER=P0100000I, OU=SELLO ELECTRONICO, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-P0100000I, O=ARABAKO FORU ALDUNDIA / DIPUTACION FORAL DE ALAVA, C=ES
Emisor del certificado: CN=EAEko HAetako langileen CA - CA personal de AAPP vascas (2), OU=AZZ Ziurtagiri publikoa - Certificado publico SCA, O=IZENPE S.A., C=ES
Número de serie: 211865
Fecha de firma: 2021.06.07 06:08:08 Z